

**KALE BERRIKO TRINKETA
A MAILA****BERRIA 16-18-20-22****Egile eta data ezezagunak****Deskribapena**

Eraikina 1884koa da, eta Kale Berriaren 16, 18, 20 eta 22 zenbakietako etxebizitza eraikinen atzealdea hartzen du. Trinket zaharraren zati nagusia pieza angeluzuzena da, 40 m x 9 m-ko oinekoa. Behe oinaren mailaren gainetik dago kokatuta eta eraikuntza ingurutzailaren altuera osoa hartzen du. Pieza horrek lokal bat dauka behe oinean, egungo sarbidea ematen diona, hain zuzen. Jatorrian, itxura batean, barge bolumen bakarra (pilotalekua) zen, ikusleentzako galeria irtenak zituena albo batean. Horiek, ziurrenik, 16 zenbakiko eskaileretatik izango zuten sarbidea. Mendearen hasiera aldean, ibilgailuak konpontzeko lantegi bihurtu zen eta egungo sarbidea gaineratu zen, tarteko forjatu bat eraikita eta kargagailu bat ipinita. Itxuraz, esku hartze horrek galerietakoren bat ezabatu zuen, baina zurezko egitura tenkatu interesgarri bat gaineratu zuen; lehendik zegoen eta, era berean, kontserbatzen den estalkiarekin lotutakoa. Aurrealdean, kalitate oneko harlanduzko fabrika antzematen da, bai eta alboetako harlangaitz horma lodiak ere. 1990 inguruan, jatetxe bat gaitu eta eskailera bat erantsi zuten. Gainera, komun batzuk eta beste gela txiki batzuk eraiki zituzten; baina, adierazitako jatorrizko elementu askori eutsita. Kanpotik, fatxaden baoetan ez da ikusten inolako aldaketarik.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean monumentu gisa sartzeko hasitako espedientearen ondoriozkoa (1992ko ekainaren 12ko Ebazpena; 134. EHAA, 1992-7-13koa).
- * Eragindako ingurunea: adierazitako ebazpenean ezarritakoa.